

*Sektore publikoa indartzerara goaz!*

**ZURE ENPLEGUA**

**KONTSOLIDATZEKO**

**ORDUA DA**

**APIRILAK 22:  
GREBA SEKTORE PUBLIKOAN**



**MARTXOAK 25, MANIFESTAZIOAK HIRIBURUETAN**

**#KontsolidazioaORAIN**



## ENPLEGU PUBLIKOA KONTOLIDATU!

ELAk mobilizazioak deitu ditu sektore publikoan behin-behineko langileen egoera konpontzeko. ▶

### ✓ Zein da egungo egoera?

Gaur egun 65.000 langiletik gora daude Hego Euskal Herriko administrazio publiko ezberdinetan behin-behinekotasun egoeran lan egiten; sektore publikoko langileen %40a, langile prekarioa da. Horietatik 50.000tik gora Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan ari dira lanean, gehienak Osakidetzan –15.600 behin-behineko langile, guztien %44a– eta Hezkuntzan –12.290 langile, %41a–. Udal eta Foru Administrazioan edo Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoetan ere milaka dira egoera horretan dauden langileak. Nafarroan, berriz, 15.000 inguru dira sektore publikoan diharduten behin-behineko langileak. Osasunbidean, adibidez, 5.500 langiletik gora dira behin-behinekoak, %50tik gora, Hezkuntzan ere 3.000 langiletik gora, %40tik gora.

Gainera, ezin dugu ahaztu Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoetan 120.000 langile daudela azpikontratatuta. Zaintza esparrua –zahar egoitzak, eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza, esku-hartze soziala...– azpikontratua dago ia bere osotasunean; hezkuntza edo osasungintza bezalako sektoreetan badira esparru oso batzuk ere azpikontratuak daudela %100ean: garbitasuna, jantokiak, sukaldeak, mantentze zerbitzuak... **Gure agintariek zerbitzu publikoak negozio esparru bilakatu nahi dituzte.**

### ✓ Nola heldu gara honaino?

Eguno egoera erabaki politiko baten ondorioa da. Gobernu eta administrazio ezberdinek behin-behineko enplegu politika bat aplikatzea erabaki dute urte luzez. Azken urteetako murrizketa eta austeritate politikek arazoa areagotu besterik ez dute egin: erreposizio tasak, defizit mugak, aurrekontu murrizketak...

*Tenemos que impulsar procesos de consolidación garantistas que logre que las y los 65.000 trabajadoras y trabajadores que sufren la lacra de la temporalidad garanticen su puesto de trabajo. Y si las leyes actuales imposibilitan esos procesos masivos y garantistas, cambiemos las leyes.*

### ✓ Zer dago behin-behinekotasuna helburu duen politika honen atzean?

Hiru helburu nagusi ditu. Lehena, azpikontrataziorako bidea irekitzea. Bigarrena, behin-behinekotasun egoerek enplegua suntsitzeko aukerak errazten dituztela. Eta, azkenik, diziplina tresna eraginkorra da. Norberaren etorkizuna uneoro airean egonda, gobernuek langileak

# Sektore publikoa indartzera goaz!

kikildu egin nahi dituzte. Argi eduki behar dugu behin-behinekotasuna prekaritatea dela, eta milaka langile ditugula prekario gure sektore publikoan. Gainera honek eragin zuzena du gizarteari eskaintzen diogun funtsezko zerbitzuen kalitatean, bizi dugun pandemian oso argi geratu den bezala.

**Nuestro objetivo es claro: que los partidos políticos vascos y los Gobiernos de Hego Euskal Herria se comprometan a hacer todas las gestiones necesarias para que se den las modificaciones legislativas necesarias para que en nuestro país podamos hacer procesos de consolidación garantistas.**

## ✓ Zer proposatzen du ELAk?

Helburua behin-behinekotasunarekin modu ez traumatiko batean amaitzea da, hau da, behin-behineko moduan lanean ari diren langileei lanpostua mantentzea ahalbideratuz. ELA aspalditik dabil gai hau bere aldarrien erdigunean jartzen eremu publikoko sektore eta administrazio ezberdinetan. Proposamenak egon badaude, eta, orrialde honetan bertan irakurri daitekeen bezala, sindikatua egiten ari den informazio kanpainaren baitan jasotzen dira.

**Salbuespenezko garaiak bizi ditugu, eta, beraz, salbuespenezko konponbideak behar ditugu.** Sektore publiko osoan kontsolidazio-prozesu bermatzaileak bultzatu behar ditugu, behin-behinekotasunaren gaitza pairatzen duten 65.000 langileek lanpostua berma dezaten. Eta egungo legeek prozesu masibo eta bermatzaile horiek eragozten ote dituzten. Bada,

alda ditzagun legeak. Madrilen eta Gasteizen sektore publikoaren aldi baterako kontratazioari buruzko lege-aldaketak planteatzen ari dira. Madrilen, Estatuko Gobernuak EPOE (Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua) aldatzea planteatzen ari da orain, sektore publikoko aldi baterako kontratazioari eta Eusko Jaurlaritzari dagokienez, Kidego eta Eskalen Legean. Gure helburua da ematen ari diren urrats edo arau-aldaketa horiek baldintzatzea.

## ✓ Zer urrats egiten ari gara lege aldaketa horiek baldintzatzeko?

Madrilen dagoen aritmetika parlamentarioaren ondorioz, euskal alderdi politikoak erabakigarriak dira zenbait gehiengo lortzeko. EAJ eta EH Bildu ezinbestekoak izan dira, besteak beste, Rajoyren aurkako zentsura mozioan, Pedro Sanchezen inbestiduran eta Estatuko Aurrekontu Orokorren onarpenean. Bada, ELAtik honako hau planteatzen diegu: prest zaudete erabakigarriak izateko EPOE bezalako Lege Organiko bat aldatzeko, euskal administrazio publikoan bitartekotasunarekin amaitzeko? Borondate politiko kontua besterik ez da.

## ✓ Zer espero daiteke administrazio eta alderdi politikoengandik?

Gure helburua argia da: Euskal alderdi politikoek eta Hego Euskal Herriko gobernuek konpromisoa hartzea beharrezko kudeaketa guztiak egiteko, gure herrialdean berme-prozesuak egin ahal izateko beharrezkoak diren lege-aldaketak egin daitezen. Horretarako, kontsolidazio-prozesuak bultzatu behar dituzte, aldi baterako langileek enplegua bermatuta izan dezaten. Prozesu horiek esparruz esparru negoziatu beharko dira gehiengo sindikalarekin. Onartezina litzateke euskal alderdi politikoek aldi baterako enplegua sendotzeko mekanismo eraginkorrik ez duen erreforma babestea. ■



# Enplegu publikoa KONTSOLIDATU !

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## Propuesta de **ELA** para consolidar el empleo público **ES HORA DE CONSOLIDAR TU EMPLEO**

**La propuesta de ELA busca consolidar el puesto de trabajo a las más de 65.000 personas temporales que trabajan en el sector público. Para ello se plantea:**

- Levantar los vetos del Estado español para facilitar los procesos de consolidación garantistas.
- Garantizar la realización de esos procesos de consolidación en todo el ámbito público sin excepciones de manera acordada.
- Que quienes se encuentren en esta situación logren garantizar su puesto de trabajo. Para ello:
  1. Es necesario aflorar y sacar todos los puestos estructurales cubiertos por temporales, incluidos los que de facto existen pero no están formalmente creados. Deben considerarse estructurales, como mínimo, aquellos puestos de trabajo cubiertos por temporales en los tres últimos años, estén formalmente creados o no. (Así como aquellos puestos cubiertos por un tiempo inferior que sean estructurales).
  2. Se deben articular procesos extraordinarios de consolidación, bien sin fase de oposición o bien con fase de oposición que no sea eliminatoria y con una puntuación global máxima (equivalente a 1,5 años de experiencia laboral máxima). En la fase de concurso se valorará únicamente como mérito el tiempo trabajado en la categoría y administración objeto de la convocatoria.
- 45 días de indemnización si no logra el puesto de trabajo o si no se ponen en marcha estos procesos. De este modo se asegura que el fraude en la contratación tiene sanciones efectivas para quienes las imponen.
- Imponer responsabilidades administrativas y penales para quienes hayan generado estas situaciones de abuso de la temporalidad.

